urdaneta oianguren
ordiziako ikastetxe publikoa

HITZ ETA PITZ 2.ZIKLOA

# SINONIMOAK LANTZEN.




"NIRE AHIZPA ALUITA " liburutik hartuta dagoen pasarte honetan hitz batzuk beltzez daude. Hauen sinonimoak beheran dituzue, eraman arrastaka hitzaren gainera.

Jaiotzetik izan da **bihurria** Izaro, nire ahizpa **ttikia.** Beti kopeta zimur-zimur eginda begiratzen zidan ibiltzen ikasi aurretik. Nirekin beti **haserre** balego bezala. Zer uste du horrek? Egunen batean eman beharko diot **eskarmenturen** bat. Edo... ez. **Beharbada** ez diot **deus** txarrik egingo sekula. Izan ere, **bihurria**, **bihurria** da, baina batzuetan **maitagarria** ere bai!!

Gurasoak nonbaitera joan eta Izaroren kargu uzten nindutenean, **sekulakoak** eigten zizkidan. Gurasoekin zegoela, inoiz ere egiten ez zituen **deabrukeria** guztiak egiten zizkidan. **Etsita** bukatzen nuen.

Eta gainera, gurasoak **agertzen** zirenean, nirekin haserretzen ziren. Bazirudien ni nintzela Izaroren bihurrikeria guztien errudun bakarra. Gero goxatzen ninduten, baina, **hasierako** begiratuak eta errietazko marmarrak niretzat izaten ziren.

GAIZTO LEHENENGO BARRABASKERI OKER

AMORE EMANDA TXIKIA KEXU ARDURA

AGIAN EZER KRISTONAK AZALTZEN

ATSEGINA IRAKASPENA